



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 1994/01/21

ALHAO, 52 zk. 1994/05/06

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

## ILEAPAINDEGI, EDERTZE-ARETO ETA ANTZEKOEN HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Bide parenteraletik nahiz larruazalaren bidez transmititzen diren infekzioen zer-nolakoak ikusirik, komenigarria suertatzen da ileapaindegi, edertze-areto eta antzekoetan burutzen diren ihardueretan aintzat hartu beharko diren higiene eta osasun baldintza eta praktikak arautzea; izan ere, odolaren bidez kutsa daitezkeen tresnak erabiltzen dira horietan, eta larruazaleko gaitzak sor ditzaketen agente patogenoen presentzia handiagoa izan ohi da. Horregatik, indarrean dagoen Erregimen Lokalak osungarritasun publikoari eta osasuna zaindu eta sustatzeari dagozkienetan udalei emandako eskumena tarteko, ordenantza hau zertu da, eta bertan finkatzen dira aipatutako ihardueretarako aretoek, bertan erabiltzen diren tresnek eta bertako langileek bete beharreko baldintzak, guztia ere sektore horretarako lehendik emandako arauen eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailburuaren 1989ko ekainaren 19ko Aginduaren ildotik.

### **LEHENENGO IDAZPURUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.-**

Bide parenteraletik nahiz larruazalaren bidez gaitzak transmititzeko arriskua eragozteko ileapaindegi, edertze-areto eta antzekoetako - ilearen tratamendurako zentroak, bizartegiak, hatz edo behatz apaindegiak, tatuaiak, belarri zulaketa eta antzekoak burutzen diren establezimenduak- ohizko ihardueretan aintzat hartu beharko diren higiene eta osasun baldintza eta praktikak arautzea du xedetzat ordenantza honek.

#### **2. artikulua.-**

Ondoren zehaztuko diren establezimenduetan burutzen diren iharduerari dagokiena izando da ordenantzaren ezarpen-esparrua.

1.- Zeregin hauek tarteko dituen lanbidea burutzen den establezimendua joko da ileapaindegizat: ilea orraztu, kizkurtu, tindatu edo moztea, ileordeak egin edo saltzea, eta produktu kosmetikoak besterik erabili gabe burutzen diren ile-apainketaren alorreko bes-telako iharduerak.

2.- Giza-gorputza edertzera zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzten zentro edo establezimenduak joko dira edertze-aretotzat. Zainketa estetiko horiek teknika eta produktu kosmetikoak besterik aplikatu gabe burutuko dira; alde batera geratzen dira gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta sendakuntza xedetzat dutenak, baita irensteko, inhalatzeko, injektatzeko edo gorputzean sartzeko direnak ere. Teknika desberdinak erabili ahal izango dira establezimendu horietan, banaka nahiz konbinatuta, hala nola:

- Depilazio elektrikoa
- Hidroterapia
- Ionizazioa
- Elektrobizkuntza
- Eskuzko masaia
- Presoterapia
- Izerditze-sistema
- Osasunaren alorreko baimena duten apaintzeko erradiazioak.

Sauna, igerileku, gimnasio eta abarrekin bateratu ahal izango dira, horietako bakoitzaren alorreko arautegiak betetzen badira.

3.- Ordenantza honetan aintzat hartzen diren beste establezimendu batzuk hauek dira: bizartegiak, ilearen tratamendurako zentroak, hatz eta behatz apainketarakoak, tatuaiak eta belarri zulaketak egitekoak eta antzekoak, zein beti ere produktu kosmetikoak eta berariazko tresnak erabiliz tratamendu estetikoak ematera zuzenduak izango baitira, alde batera geratzen direlarik izaera sanitarioa dutenak.

4.- Iharduera horiek elkarrekin bateragarri izango dira, baldin eta iharduera-sektore bakoitzari dagozkion baldintza urbanistiko, tekniko eta higieniko-sanitarioak betetzen badira.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 1994/01/21

ALHAO, 52 zk. 1994/05/06

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

## **BIGARREN IDAZPURUA.- ARETOEN, PRODUKTUEN, TRESNERIAREN ETA LANGILEEN BALDINTZAK**

### **I. ATALBURUA. ARETOEZ**

#### **3. artikulua.-**

Aretoen kokapena eta erabilera hiriko hirigintza arauak baimendutakoak izan beharko dira eta udal ordenantzetan xedatutakora egokitu beharko.

#### **4. artikulua.-**

Osasunari dagozkionetan, behar bezala zainduta, garbi eta desinfekzio egoera egokian eduki beharko dira aretoak eta bertako instalazioak.

1.- Erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko material lau eta iragazkaitzekoak izan beharko dute zoluak eta paretek.

2.- Ur korrante edangarria, hotza nahiz beroa, bertaratzeko instalazioa eduki beharko dute, ura 80oCtaraino berotzeko aukera ematen duena.

3.- Aretoaren aireztapena eta argiak naturalak nahiz artifizialak izan daitezke, baina, edonola ere, ematen zaion erabileraren araberako harmen eta bolumenerako egokiak izan beharko dute, eta, beti ere, indarrean dagoen legeriari egokitu beharko zaizkio.

4.- Beharrezko den guztietan eta gutxienez ere urtean behin sakoneko desinfekzio, intsektu-galtze eta arratoi-galtze saioa egin beharko dute areto eta instalazioetan horretarako gaitutako langileek, baimen sanitarioa duten produktuekin.

5.- Komunak eduki beharko dituzte, aurre-gelarekin, gizonezko nahiz emakumezkoentzakoak baldin eta batzuei eta beste zuzendutakoa bada zerbitzua. Komunetan papera eduki beharko da beti, eta konketetan xaboi likidoa eta aire berotzeko eskuak lehortzeko edo behin bakarrik erabiltzeko toailak.

6.- Aretoen barruan berariaz materiala, produktu kosmetikoak eta ehunak gordetzeko izango den alde bat izango da.

7.- Orobat, lehen laguntzetarako botikina duen armairu bat eduki beharko da aretoan, sendatzeko materiala duena, erabiltzeko leku egokian kokatua.

8.- Apal, armairu eta bestelako altzariek lurretik nahiko distantziara egon beharko dute, garbiketa eta desinfekzioa behar bezala egiteko modua izan dadin.

9.- Hondakinak botatzeko ontzi egoki eta hermetikoak eduki beharko dira aretoan.

10.- Aretoak gutxienez egunean behin desinfektatu beharko dira, eta, hala behar izanez gero, bete beharreko higiene eta garbiketa baldintzak betetzeko behar adina bider.

### **II. ATALBURUA. PRODUKTU KOSMETIKOZ**

#### **5. artikulua.-**

Ordenantza honek arautzen dituen ihardueretan erabiltzen diren produktu kosmetikoen ez dituzte kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arrisku-bidean jarri beharko, eta duten erabileramoduaren arabera erabili beharko dira.

#### **6. artikulua.-**

Produktu horiek baimenduta eta etiketatuta egon beharko dute, baita produktu kosmetikoei buruzko arautegi tekniko-sanitarioan xedatutakoa bete ere.

#### **7. artikulua.-**

(Edukirik gabe geratu)

#### **8. artikulua.-**

Depilaziorako, nagusiki, behin bakarrik erabiltzeko eta merkaturako higienizatutako argizari hotz edo erretxinak erabiliko dira. Argizari beroak erabiltzekotan, bezero bakoitzarekin erabilitako geruzak bota egin beharko dira; edonola ere, gutxienez 60oC-taraino berotu beharko da, gutxienez 45 minutuz, lehenengo aldiz erabili aurretik.

### **III. ATALBURUA.- TRESNERIAZ**

#### **9. artikulua.-**

Tresna eta aparailu guztiek, oro har, garbiketa eta desinfekzio egokia aise egin ahal izateko moduan diseinatu eta instalatuta egon beharko dute. Horien osagaiek eta ematen zaien erabilerak ezingo dute kaltegarri izan bezeroentzat, osasunari nahiz segurtasunari dagokionez.

#### **10. artikulua.-**

Toaila, izaratxo, batatxo eta gainerako ehun orok behar bezala zainduta eta egoera higieniko egokian egon beharko dute. Baztertu egingo dira erabileratik odolez zikintzen direnean, eta beste batzuk erabiliko dira haien orde; gerora garbitu egingo dira. Garbiketa hori, baita ohizko erabileraren ondorengoa ere, modu automatikoan egingo da, ur berotan, desinfekzioa tarteko.

#### **11. artikulua.-**

Ordenantza honen menpe dauden establezimenduek ontzi egokiak eduki beharko dituzte hondakinak eta arropa zikinak jasotzeko.

#### **12. artikulua.-**

Azala zulatzen edo ebakitzen duten tresnak, depilazio orratzak, tatuai orratzak nahiz belarriak zulatzekoak, azkazaletako limak, bizarra mozteko tresnak eta, oro har, odolez kutsa litezkeen objektu guztiak, behin erabiliz gero botatzekoak izango dira, eta erabiltzailearen aurrean kendu beharko zaie prezintoa eta bota. Edonola ere, ezingo dira bezero batekin orain eta beste batekin gero erabili.

#### **13. artikulua.-**

Aurreko artikuluan aipatutako tresna puntadun eta zorrotzak, bota behar direlarik, ontzi gogor eta sendo batera botako dira, eta udalak horretarako ezartzen duen moduan suntziarazi beharko dira.

#### **14. artikulua.-**

Goian aipatu ez den gainerako materiala (orraziak, guraizeak, depilazio pintzak, metxa gakotxoak, etab.) behar bezala desinfektatu edo esterilizatu beharko dira odolez zikintzen badira.

Horretarako, ondorengo metodo hauek jotzen dira egokitza:

DESINFEKZIOA: Zerbitzu bakoitzaren ondoren, metodo hauen bitartez:

- Ur irakinaldia, 20 minutuz.
- Hipoklorato sodiko disoluzioa (etxeko lixiba, %10ean), 20 minutuz.
- 96otako alkohola, 20 minutuz.
- Glutaraldehidoa, %2an, 20 minutuz.
- Formaldehidoa, %4an, 20 minutuz.
- Izpi ultramoreen ganbara, 20 minutuz.

ESTERILIZAZIOA: Eguneko lanaldia bukatutakoan, baita odolez zikindutako guztietan ere.

- Autoklabea, 120oC-tan, 20 minutuz.
- Bero lehorreko estufa edo labea, 170oC-tan, ordu betez.
- Glutaraldehido soluzioa, %2an, 10 orduz.
- Lixiba soluzioa, %10ean, 10 orduz.

#### **15. artikulua.-**

Debekatuta egongo da behin baino gehiagotan erabil daitezkeen hemostatiko solidoak (odola mozteko lapitzak); horien orde hemostatiko likidoak erabili beharko dira.

#### **16. artikulua.-**

Establezimenduetan dauden solariumek fabrikatzaileak eskatzen dituen ezaugarriak bildu beharko dituzte. Horiek erabiltzeak izan ditzakeen arrisku eta kontraindikazioen berri ematen duten kartelak izan beharko dituzte. Bezeroak eskatuz gero, babesteko betaurrekoak eman beharko zaizkio; edonola ere gomendatu egingo dira. Erabilera bakoitzaren ondoren garbitu egin beharko da instalazioa, era sistematikoan.

### **IV. ATALBURUA.- LANGILEEZ**

#### **17. artikulua.-**

1.- Burutzen duten iharduera burutzeko beharrezko diren ezagutza profesionalen jabe direla egiaztatu beharko dute establezimendu horietan diharduten langileek.

2.- Lanean diharduten bitartean, horretarako bakarrik erabiliko dituzten arropak eraman beharko dituzte soinean, kolore argikoak; beti ere garbitasun eta higiene egoera egokia agertu beharko dute.

3.- Derrigorrezkoa izango da zerbitzu bakoitzari ekin aurretik eskuak garbitzea.



- 4.- Nolabaiteko zauririk eragin lezaketen teknikez baliatzen direlarik langileak, babesteko elemento egokiak erabili beharko dituzte (betaurrekoak, eskularruak...). Horrela, depilazio elektrikoa egiteko, eskularruak erabili beharko dituzte teknika aplikatzen dutenek.
- 5.- Langileek debekatuta edukiko dute, erabat, erretzea, jatea nahiz edatea, bai lanerako lekuan, bai biltegian.
- 6.- Komuna, aldagela edo takilak izan beharko dituzte langileek, Laneko Segurtasunari eta Higieneari buruzko Ordenantzaren arabera. 100 m<sup>2</sup>tik beherako establezimenduetan publikoak erabiltzekoak berberak izan daitezke langileentzako komunak.

## **HIRUGARREN IDAZPURUA.- BERARIAZKO BALDINTZAK**

### **I. ATALBURUA.- ILEAPAINDEGIEZ**

#### **18. artikulua.-**

Baldintza hauek bete beharko dituzte, berariaz, ileapaindegiek:

- 1.- Instalazioei dagokienez: material eta tresnar garbitzeko aparteko konketa bat eduki beharko dute, buruak eta eskuak garbitzeko erabiliko denetik bereiz, horretarako bakarrik erabiliko baita hori.
- 2.- Lanerako tresnei dagokienez: lanerako tresnen garbiketa (orraziak, eskuilak, ruloak, pintzak...) garbikaria eta ur korrontea erabiliz egingo da, eskuilaz igurtziz eta batez ere tresnen artikulazioak ondo garbitzen saiatuz (guraizeak, labainak...). Gero, 13. artikuluan zehaztutako desinfekzio eta esterilizazio teknikak aplikatu beharko zaizkie - kasuan kasu egoki dena.
  - Erabili ondoren botatzeko ez diren tresna zorrotzak, hala nola guraizeak, tenazatxoak, azaltxoak moztekoak, hatz eta behatz apainketarako tresnak oro, ilea mozteko makinaxoen euskarriak, etab., erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta esterilizatu beharko dira.
  - Garbitu eta esterilizatu ondoren egoera aseptikoan gorde beharko da tresneria, erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko bandeja eta kaxoietan.
  - Bezero bakoitzarekin toaila garbiak erabili beharko dira, bukatu ondoren garbitzeko utziko direnak.
- 3.- Altzariei dagokienez (mahaiak, eserlekuak, hatz apainketarako gurditxoak...): egunero garbitu beharko dira, baita ondoren desinfektatu ere.
- 4.- Depilazio lanik egiten bada, aparteko areto bat eduki beharko da horretarako, beste ezertarako erabiltzerik izango ez dena.

### **II. ATALBURUA.- EDERTZE-ARETOEZ**

#### **19. artikulua.-**

Baldintza hauek bete beharko dituzte, berariaz, edertze-aretoek:

- 1.- Instalazioei dagokienez: Berezoek bakarrik erabiltzeko aldagelak izan beharko dituzte, dutxa, konketa eta komuna barne, baldin eta aretoen azalera 90 m<sup>2</sup>tik gorakoa bada. Dutxek ur beroa nahiz hotza eduki beharko dute, eta isurbide-sistema arinez hornituta egon beharko dute.

Erabiltzaileen arropa eta oinetakoak modu higienikoan gorde beharko dira, erabilera bakoitzaren ondoren erraz garbitzeko moduko instalazio eta elementuez baliatuz.
- 2.- Praktika higienikoei dagokienez: Gorputza eta aparailua zuzeneko kontaktuan jartzea eskatzen duten tratamendu-tekniken kasuan, bezero bakoitzarekin erabili ondoren desinfektatu beharko da hura, edo, bestela, batekin bakarrik erabiltzeko akzesorioa tartekatuko da aldioro.
  - Tratamendurako ohatila nahiz eserlekuek iragazkaitzak eta erraz garbitzeko modukoak izan beharko dute. Zerbitzualdi bakoitzean aldatu beharko den izaratxo bat jarriko da horien gainean.
  - Tratamendu-teknikek betaurrekoak erabiltzea eskatzen dutenean, ez dute horiek inoiz larruazalarekin zuzeneko kontaktuan egon beharko; erabili ondoren botatzeko elementuren bat tartekatuko da.
  - Eskuz ez beste moduren batez atera beharko dira ontzietatik eta aplikatu produktu kosmetikoak.



### **III. ATALBURUA.- BESTELAKO ZENTROEZ**

#### **20. artikulua.-**

Baldintza hauek bete beharko dituzte, berariaz, giza-gorputza edertzeko gainerako zentroek, hala nola ilearen tratamendurako zentroek, hatz eta behatz apainketarako nahiz tatuaiak egiteko direnek, etab.:

- 1.- Bigarren idazpuruan ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte, baita ilea-paindegi eta edertze-aretoetarako ezarritakoetatik dagozkienak ere.
- 2.- Eskainitako zerbitzuak estetikaren alorrekoak izango dira, eta produktu kosmetikoak bakarrik erabili ahal izango dira.
- 3.- Ile-implantazio edo kirurgi-lantxorik egiten bada, edo formula magistralak nahiz espezialitate farmazeutikoak agintzen badira, ezinbestekoa izango da horren ardua bere gain hartuko duen mediku baten presentzia, zeinek legezko gaitasuna eduki beharko baitu lanbidean iharduteko, eta instalazio klinikotzat joko dira halakoak zentzu guztietan.

### **LAUGARREN IDAZPURUA.- ERANTZUKIZUN, BETEKIZUN, ARAU-HAUSTE ETA ZIGORREZ.**

#### **21. artikulua.-**

Ordenantza honen kontrako arau-hausteen erantzulea udal lizentziaren titularra izango da. Hala ere, fabrikatzaileak izango du erantzukizuna establezimenduetan erabiltzen diren teknika eta produktuetatik sortutako kalteei dagokienez, modu ezegokian, erabilera-oharrei jaramonik egin gabe erabili direnean salbu; halakoetan ihardueraren titularra izango da erantzule.

#### **22. artikulua.-**

Sektoreko profesionaliek susmoa edukiz gero ezen bezero bat bizkarroien mende dagoela, azaleko gaitzen bat duela, etab., horrelakoetarako dauden osasun zerbitzuetakoren batera bidali beharko da, bertan jar diezaioten behar duen tratamendua; ahal den neurrian beste erabiltzaile batzuk kutsatzea galaraziko da.

#### **23. artikulua.-**

Aretoaren barruan, eta ikusiko den lekuan, eskaintzen diren zerbitzuei eta horien prezioei buruzko informazio-kartel bat jarri beharko da.

Kartel horretan, orobat, nahi izanez gero erreklamazio orririk eskura dezaketela jakinaraziko zaie erabiltzaileei.

Kanpotik ikusteko moduan, berriz, bezeroak hartzeko ordutegiaren berri ematen duen kartela jarri beharko da.

#### **24. artikulua.- Arau-hauste eta zigorrak:**

1.- Ordenantza honetan xedatutakoari dagokionez, hauek izango dira arau-hausteak:

- Bertan eta indarrean dauden osasunaren alorreko gainerako arautegietan bildutakoa ez betetzea.
- Alkate-udalbatzarburuak osasunaren alorrean egindako eskakizunak ez betetzea.
- Kontsumitzaileen osasunerako arriskua edo benetako kalteak sortzen dituzten ekintza edo utzikeriak, iharduera eta instalazio horietarako eskatzen diren jokabide eta ardurak bertan behera utzi eta beharrezko kontrolak egin ez direnean.
- Ikuskaritza galaraztea edo trabak jartzea, datuak emateari, informazioa eskaintzeari eta laguntzeari uko eginez.

2.- Honela sailkatuko dira arau-hausteak: arinak, larriak eta oso larriak. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontutan: zer-nolako arriskua sortu den osasunarekiko, lortutako onuraren zenbatekoa (izanez gero), intentzio-gradua, sortutako alterazio sanitario eta sozialaren larritasuna, arau-haustearen orokortasuna eta lehendik ere halakorik egin izan den.

3.- Isuna ezarriz, iharduera aldi baterako bertan behera utziaraziz edo establezimendua, aretoa edo enpresa itxiaraziz zigortuko dira ordenantza honekiko arau-hausteak; gainera, osagarritzko zigor gisa, dekomisioa gehitu ahal izango zaio horri.

- Hutsegite arinak: 100.000 pezetara arteko isuna.
- Hutsegite larriak: 500.000 pezetara arteko isuna edo iharduera aldi baterako bertan behera uztea.
- Hutsegite oso larriak: 2.500.000 pezetara arteko isuna edo establezimendua ixtea.
- Arau-hausteak sailkatzeko erabilitako irizpide berberak hartuko dira kontutan zigorren graduaziorako.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Onespena: 1994/01/21

ALHAO, 52 zk. 1994/05/06

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

4.- Preskripzioa. Arau-hauste arinek bi hilabeteren buruan preskribituko dute, larriek eta oso larriek bost urteren buruan; arau-haustea gertatu zen egunaren biharamonetik kontatuko da epea, eta zigortzeko prozedurari ekin zaiola jakinarazten delarik geratuko da etenda.

5.- Prebentzio-neurri gisa, honako hauek hartu ahal izango ditu alkatetzak (ez dute inolaz ere zigor izaera izango):

- Merkantzia, produktu eta tresnen badaezpadako bahiketa.
- Iharduera behin-behingo bertan behera utzi edo aldi baterako ixtea, neurri zuzentzaileak hartu, akatsak zuzendu edo osasunaren, higienearen eta segurtasunaren alorreko betekizunak bete arte.
- Egokitzat jotzen duen beste edozein, beharraren neurrikoa, ezinbestekoa bada udalerrian herritarren osasuna bermatzeko.

#### **25. artikulua.- Zigortzeko eskumena eta prozedura:**

Zigorak ezartzeko eskumena alkate-udalbatzarburuak izango du, zeinek dagokion administrazioespeditari hasiera eman eta bideratu beharko baitu horretarako; guztia ere indarrean dagoen Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Ohizko Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren (nahiz aurrerantzean ezartzen denaren) ildotik.

#### **26. artikulua.- Gauzaketa:**

Borondatezko epean nahiz premiazko bidetik galdutuko dira isunak, Erregimen Lokalari buruzko arauekin bat etorritik.

#### **27. artikulua.- Erantzukizun penalak:**

Ordenantza honetako arauak hausten direlarik intoxikazio edo lesiorik gertatzen bada, edo deliturik izan dela uste izateko arrazorik badago, jurisdikzio penalaren esku utziko dira izapideak.

#### **INDARGABETZE-XEDAPENA.**

Indarrrik gabe geratuko da, aurrerantzean, udal ordenantzetan jasota egonik ordenantza honetan adierazitakoaren kontra dagoen oro.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, testua Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lege-testu hartako 65. artikuluan aurrikusitako epea igaro ondoren jarriko da indarrean ordenantza hau.